



## **AKTA**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 1ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko otsailaren seian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko otsailaren 6an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- I.O. eta L.J., Aizarnako San Pelaio Etxola bezala ezagutzen den eraikinaren bizigarritasun baimenaren inguruko kontsulta urbanistikoa egiten dute. Erabaki da jakinaraztea aurkezturiko txostenean ez dela bermatzen Aizarnako San Pelaio Etxolak iraganean bitzta erabilera izan zuenik. Beraz, ez dira eraikinaren bizigarritasun baimena emateko baldintzak betetzen.

3.- X.M eta A.E., Urdanetabidea 3ko Kortaberri baserriaren obra lizentzia otsailaren 28an amaitzen dela eta, baimenaren epea luzatzea eskatzen dute. Erabaki da jakinaraztea Udalak bilera batetara deituko dituela interesatuak, gaia aztertu ahal izateko.

4.- J.L.E.A., Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2018ko urtarrileko hilabeteari dagokiona. Erabaki da jaso izanaren adierazpena egitea.

5.- J.G.M., duela hilabete batzuk Aizarnatik Santa Engrazirako bidea arriskutsua zegoela eta, segurtasun bionda batzuk jartzeko eskaera aurkeztu zuen. Foru Aldundiko errepide saila errepide horretan hainbat bionda jartzen ari da. Baina bere terreno parean, aldapan, arriskua dagoela eta bionda gehiago jartzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea Udalak idatzi honen berri emango diola Foru Aldundiari, aurrerantzean bionda gehiago jarri beharra dagoen aztertzeke.

6.- X.A.I. , Erdoiztatik Iturriotzera doan bide ondoan borda bat dago eta bidea estua denez, borda egoteak arazoak sortzen ditu. Bordan ez dago animalirik, hutsik dago. Borda bide ondotik kendu eta goikaldeko zelaian berreraikitzeke aukera aztertzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Erdoiztatik Iturriotzera doan bide ondoko borda bide ondotik kendu eta goikaldeko zelaian berreraikitzea onargarria dela. Hala eta guztiz, borda berriak, zaharraren bolumen berdina izan beharko du. Baimena eman aurretik, proposamen teknikoa aurkeztu beharko da (borda zaharraren eta berriaren ezaugarriak adierazten dituzten planoak eta memoria deskribatzailea). Bestalde, partzelaren segregazioari dagokionez, gogoratzen da segregaturiko zati bakoitzek 20.000 m<sup>2</sup> izan beharko dituela. Baimena eman ahal izateke segregazio eskaera aurkeztu beharko da udalean segregatu beharreko partzelen ezaugarriak eta mugak deskribatuaz.

7.- K.I.ri, Parrokiko teilatua eraberritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan



ezarritako baldintzen arabera.

8.- K.I.ri, Parrokiko teilatua eta kanpandorra eraberritzeko obretarako andamioak jartzeko baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

9.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, Arroagoiko Kamineroko etxea hutsa dagoela eta Udalak etxe honetan interesik duen galdetzen dute. Erabaki da jakinaraztea Zestoako Udalak ez duela intereserik Kamineroko etxean.

10.- A.A.S.L., Bainuetxeko errepidea 6-8 eraikineko Aroztegi mekanikoaren jarduerarako baimen eskaera beste urte betez luzatzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea kontuan izanik udal planeamenduaren errebisiorako aurreikuspenak orain zehazteke daudela (Arozena eremuaren etorkizuna eta saihebidetaren trazaketa), arutz jarduerarako baimena, behin behineko izaerarekin, beste urtebetez luzatzea.

11.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Trenbidearen Zortasun Akustiko Eremuetan eraikuntza berriak egiteko ingurumen alorreko betebeharren inguruko idatzia aurkezten du. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia.

12.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, EAeko jardura ekonomikoetarako lurzorua sortzeko eta merkataritza-ekipamenduak antolatzeko LAParen berrikuspen partzialari dagokion aldatetari buruzko idatzia aurkezten du. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia.

13.- A.M.I.L, Arretxe plaza 2an ur filtrazioak daudela eta balkoiak konpontzeko eta berriztatze obretako udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

14.- J.M.M.L., Ibarrola bidea erorita dagoela eta konponbide bat ematea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea 2015. urtean Zestoako Udalak adostutako irizpidea berresten dela eta Ibarrola bidea Gorputz bidea denez, eta jabetza izaera pribatukoa denez, Zestoako Udalak ez duela bertako konponketa lanen ordainketan parte hartuko. Bestalde, bi geologia enpresek aurkeztu dituzten proposamen tekniko-ekonomikoak berari emango zaizkio.

15.- J.M.E.O., Benta-peligrorako bidean, Bidezarra 4-10 pareko bidean kotxeek gaizki aparkatzen dute; bide zati haundia hartzen dute eta kotxearekin etxera ezin pasata ibiltzen gara. Udalarari eskatzen dio neurriak har ditzala. Erabaki du jakinaraztea Udalak arazoa aztertuko duela, ahalik eta irtenbide egokiena aurkitu ahal izateko.

16.- I.U., Idoieta baserrian paletak egiten dituztela eta kamioiek Lau Iturrietatik Binuetxeko geltokira doan bidea erabiltzen dutela dio. Kamioiek araoak izan dituzte bide horretatik pasatzeko, zuloz beteta dagoelako. Bidea egokitzea eskatzen du, gutxienez zuloak tapatzea. Aurrerantzean arazorik ez izateko irtenbide bat emateko aukerak aztertzea ere eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Udalak aurreikusirik daukala Lauiturrietatik Bainuetxera doan bideko zuloak makina batekin estaltzea. Bestalde, Idoieta baserrian paleak egiteko jarduerari buruzko tramitazioaren konstantziarik ez dagoenez, udal honetan jardura baimena tramitatu behar da.



17.- C.F. de G.ri, Arroaerrekako Errementari baserriko teilatua berritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

18.- J.A.E., Kultur Etxe azpiko garajeetara joateko zailtasunak dituela dio, adapa zein eskailerak jeisteko. Horrela, aldapan baranda bat jartzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Kultur Etxe azpiko garajeetako aldapan, alderdi batean, baranda jartzea.

19.- Euskaltel S.A.ri, bere zerbitzuak zabaltzeko Azkue arean kablea sartzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

20.- Lautalan S.M.k, Zestoako Gaztetxean hartu beharreko neurri zuzentzaileak aurkezten ditu. Erabaki da jakinaraztea ontzat ematen direla aurkezturiko neurri zuzentzaileak.

\* Gorka Unanue zinegotziak bere iritzia eman du. Bere uztez, Gaztetxeak iraganean izan zuen erabilera eta gaur egunekoak ez daukate zer ikusirik. Gaur egun oso erabilera txikia dauka eta askotan desegokia. Gainera lokalaren egoera txarrak eragin zuzena dauka kultur etxeko beste erabiltzaileengan. Gaztetxea Kultur Etxetik beste toki batera mugitzea dela egokiena pentsatzen du baina ez dago beste lokal aternatibo garbirik (agian trenaren geltoki zaharra izan daiteke baina ez dauka garbi). Hala eta guztiz, lokal alternatiboaren billaketa Gaztetxearen erabilera eta herrian betetzen duen funtzioa azaleratzen dituen proiektu batean oinarrituta egon behar du. Azkenik gobernuko 2 alderdiek adosturiko erabaki baten ondoren eman behar direla Gaztetxearen inguruko pausuak esan du.

Mikel Arregi zinegotziak ondoren bere iritzia eman du. Gaur egungo Gaztetxearen bidea agorturik dagoela onartu du, baina garbi dauka gaur egungo lokala itxi aurretik beste alternatibak aurkitu behar direla. Kultur arloko zenbait taldek egin duten eskaeraren barnean aztertuko beharko litzatekeela esan du, balioanitzeko kultur eremu baten barnean.

Gaur egungo Gaztetxeko erabiltzaileekin harremanetan jarri eta beraiekin proposamen ezberdinak lantzea beharrezkoa dela esan da.

21.- M.L.E.M., Arroabeko Tellendi poligonoan garbitegi industrial jarduera martxan jartzeko udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea ontzat ematen dela aurkezturiko gas propano deposituaren kokapen aldaketa eta jarduera martxan jarri ahal izateko, beharrezkoa den tramitazioarekin hasiko da Udala.

22.- A.I.O., Arroaerrekako bidea 4an, Landetaberri etxearen ondoan txabola egiteko udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

23.- Tinko Ingeniaritzak, Albiceinen izenean, Sansinenean Albiceinek dituen 2, aux 2, 3 eta 4 nabeen irekiera baimen titularitate aldaketa onartzea, Haizenovaren izenean jartzeko.

24.- J.A.G., Aizarnako 5. poligonoko 8. lursailean oilo erruleentzat nabea eraikitze obretako udal baimena eskatu zuen. 2018ko urtarrilaren 18an udal baimena igorri zitzaion; bertan, jarduera tramitatu ahal izateko, aurretiazko komunikazioari dagokion inprimakia eta egiaztatze teknikoko ziurtagiria aurkeztu beharko zituela jakinarazi zitzaion. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa.



## ZESTOAKO UDALA

25.- T.I.S.L.U.k, Arroan Bombas Azcue S.A.k duen jarduera legeztatzeko proiektua aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea ontzat ematen dela aurkeztutako dokumentazioa.

26.- A.E.A., Ibañarrietako Iruretxiki baserriko terrenoetatik pinua atera behar duela eta ondoren sagarrondoak sartu. Pinua ateratako terrenoetako lurak berdintzeko baimena eskatzen du eta kontsula egiten du pinuak zein bidedatik atera behar dituen. Erabaki da jakinaraztea Ibañarrietako Iruretxiki baserriko terrenoetako pinua atera eta bertako terrenoak berdintzeko baimena ematen dela. Hala eta guztiz, beharrezkoa balitz, Foru Aldundiaren baimena lortu beharko da lanak hasi aurretik. Bestalde, Astotxiki bidearen egoera ikusita (Irureaundi eta Iruretxiki baserrien artean), udalak ez du baimentzen bide honetatik pinua ateratzea, eta bide alternatiboak aztertu beharko dira.

27.- T.L.S.L.k, euria egiten duenean Toribio Alzaga kaletik tailerrera ura sartzen dela diote. Arazoa konpontzeko neurriak hartzea eskatzen dute. Erabaki da jakinaraztea Udalak arazoa aztertuko duela irtenbide bat aurkitzeko asmoz.

28.- R.J.M., Lasako zentral hidroelektrikoari buruzko kontsulta urbanistikoa egiten du. Erabaki da jakinaraztea Lasako zentral hidroelektrikoaren jarduera baimena 2002. urtean eman zela, baina ez dago irekiera baimenik. Beraz, irekiera baimenik ez duenez, jarduera baimena berriz tramitatu beharko litzateke.

\* Mikel Arregi zinegotziak, Lasako zentral hidroelektrikoa Zestoako Udalak bereganatzeko azterketa bat egiteko proposamena egin du. Gaur egun, energia berriztagarrien aldeko apustuan, zentrala udalak bereganatzea egokia dela uste du.

29.- M.A.P.ri, Gurutzeaga kalea 6 1. etxebizitzako balkoia eraberritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

30.- R.L.G., Aizarnako Elkota baserriari lotutako lur zati bat segregatzeko udal baimena eskatzen du. Erabaki da segregatzeko baimena ez ematea, Zestoako Udaleko Arau Subsidiarioetan jasota dagoen moduan, segregatu eta gero geratzen den lur zatia ez delako iristen baimendutako gutxieneko azalerara.

31.- Erdikalea 6ko Jabekideak, eraikin horretara lotuta dauden zaborrontziak berehala kentzeko eskaera egiten dute. Erabaki da zabor ontzi horiek erretiratzea eta berriak lurrean jartzea.

32.- A.I.Z., Txiriboga auzoan duen oilaskotegiaren eta ukuiluaren ziurtagiriak eskatu zituen. Erabaki da jakinaraztea oilaskotegia eta oilategiko ziurtagiriari dagokionez, eraikin horiek eraikitzeke lizentziarik ez dela eman eta udalean horrelakorik ez dagoela jasota, soilik, ziurtatu dezake Zestoako Udalak. Bestalde, ukuiluaren baimenari dagokionez, Foru Aldundiaren txostenaren zain egotea adostu da.

33.- J.U.G., Uztapide kalea 2 3B etxebizitzako lau leiho aldatzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

34.- G.L.R., Ariztondo plaza 5 behean duten lokala etxebizitza bezala egokitzeko aukeraren inguruko kontsulta egiten du. Erabaki da jakinaraztea gaur egun indarrean dagoen araudiaren arabera ez dela posible; dena den, gaia aztertuko da.



35.- M.K.O.O., Gurutzeaga kalea 3-5eko behean gazte lokal jarduera martxan jartzeko aurretiazko komunikazioa aurkeztu zuen otsailaren 28an. Erabaki da jakinaraztea aurretiazko komunikazioa aurkeztu dela, baina teknikari gaitu batek izenpeturiko ziurtagiria falta da, indarrean dagoen legedia betetzen dela bermatuz. Ondorioz, aurretiazko komunikazioa ez da zuzena. Bestalde, jarduera irekitzeko baldintzak ez dira betetzen, beraz, lokal horrek jarduera horretarako itxita jarraitu behar du.

36.- J.R.A.A., Aizarnako garbitokia egoera txarrean dagoela eta arriskua ekiditeko neurriak hartzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea Udala eskaera egilearekin bilduko dela gaiaren inguruko informazio zehatzagoa izateko, eta horren arabera, arazoa aztertzeko eta irtenbidea bilatzeko.

37.- M.A.A.I., Sansinenea poligonoan, Areitzagabidea hasi baino lehen zaborra lurrian dagoela eta hori jasotzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea hurrengo batzordean aztertuko dela gaia.

### **Batzorde informatiboen bileren akten onarpena**

2018ko otsailaren 15ean, Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

**Alkatetza ebazpenak**.- Honako Ebazpenen berri eman da:

- \* 10 zk, Zestoako Udalak Aizarnako eskolari diru-laguntza ordaintzeko agindua.
- \* 11 zk, Zestoako Musika Bandari, hitzarmen bidez, egiten dion zuzeneko ordainketaren zati bat, aurrerapen gisa ordaintzeko agindua.
- \* 12 zk, Aizarnako Gorotzarri baserria eraberritzeko emandako obra baimena beste urte betez luzatzea.
- \* 13 zk, A. E.ren gaixotasun bajaren ordezkapena egiteko E. E.kontratatzeara.
- \* 14 zk, Zestoako Musika Eskolari eta Interpretazio Eskolari, hitzarmen bidez, egiten dien zuzeneko ordainketaren zati bat, aurrerapen gisa ordaintzeko agindua.
- \* 15 zk, Batela S.L.ren Xehetasun Azterlana
- \* 16 zk, L.M.I.O.ri, Aizarnako eta inguruko baserrietako bizilagunei eskainitako eguneroko merkataritza zerbitzurako 1.000 euroko diru-laguntza ematea.
- \* 17 zk, C. U.ri udal jabetzako baso pista eta bidea erabiltzeko baimena.
- \* 18 zk, O.S.Coop.ek Iraetan duen hiltegiko fatxadan konponketa lanak egiteko obretako udal baimena.
- \* 19 zk, Zestoako ikastetxeak garbitzeko errefortzu beharra dagoela eta M.G. %50ean kontratatzea.
- \* 20 zk, Alonderoneko aldapako igogailuaren obra esleipeneko 7.789,01euroko fidantza itzultzea C. y R. U. S.L.ri
- \* 21 zk, I.U.ren gaixotasun bajaren ordezkapena egiteko M.K.I. kontratatzea.



ZESTOAKO UDALA

**Galdera eta erreguak.-** Ez da egon.

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an  
Idazkaria,

O.e

Alkateak,